# Xedapen Orokorrak

## JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### Zk-4841

166/2004 DEKRETUA, abuztuaren 31koa, baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak laneratzeko Auzolan programa arautu zuen uztailaren 30eko 199/2002 Dekretua aldatzeko dena.

2002ko irailaren 13ko EHAAn (174 zenbakia) uztailaren 30eko 199/2002 Dekretua argitaratu zen, baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak laneratzeko Auzolan programa arautzen duena.

Dekretu horren helburua da Eusko Jaurlaritzak Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren bitartez emango dituen laguntzak arautzea, baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonei gizarte onurako enplegu bat eskaintzeko. Horretarako, prestakuntza-prozesu bat eta lana uztartuko dira, aldi baterako eta lanaldi partzialeko lan-kontratuen bidez.

Auzolan programarekin oinarrizko gizarte-zerbitzuei tresna baliagarri bat eman nahi zaie, baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonentzat gizarteratze-hitzarmen banakakoak egin ditzaten, Gizarte Eskubideen Agiriari buruzko abenduaren 27ko 10/2000 Legearen eta Gizarte-Bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legearen babesean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak epaia eman zuen 2003ko urriaren 24an, 2680/02 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren gainean. Errekurtso horretan, ELA-STV sindikatuak inpugnatu egin zuen baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak laneratzeko Auzolan programa arautzen duen uztailaren 30eko 199/2002 Dekretua, hain zuzen kontratuaren iraupenaren eta soldataren gaineko betekizunak, besteak beste 3.1 b) artikuluan jasotzen direnak.

Epaia horren epaitzak honela dio: «ELA-STV sindikatuak aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baiesten dugunez, uztailaren 30eko 199/2002 Dekretuaren (2002-09-13ko EHAA, 174 zk.) 3.1.b) artikuluaren deuseztasuna deklaratu behar dugu, hain zuzen kontratuaren iraupenaren eta soldataren gaineko betekizunei dagokienez. Eta, bestalde, prozesuan sortutako kostuak ezartzeari buruzko deklaraziorik ez dugu egiten.»

Administrazioarekiko Auziaren Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 104.1 ar-

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

### N°-4841

DECRETO 166/2004, de 31 de agosto, de modificación del Decreto por el que se articula el Programa Auzolan, para la Inserción Laboral de las personas en situación o riesgo de exclusión.

En el BOPV número 174, de 13 de septiembre de 2002, se publicaba el Decreto 199/2002, de 30 de julio, por el que se articula el Programa Auzolan, para la Inserción Laboral de las personas en situación o riesgo de exclusión.

El objeto de este Decreto es la regulación de las ayudas que el Gobierno Vasco, a través del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, otorgará para proporcionar, a las personas en situación o riesgo de exclusión social, una oportunidad de empleo de utilidad social, mediante un proceso formativo combinado con una práctica laboral a través de contratos de trabajo de carácter temporal, a tiempo parcial.

Este programa, que se denomina Auzolan, tiene como objetivo el constituirse en recurso útil a disposición de los Convenios de Inserción personalizados que se vayan elaborando desde los Servicios Sociales de Base con las personas en situación o riesgo de exclusión social, al amparo de la Ley 10/2000, de 27 de diciembre de Carta de Derechos Sociales y de la Ley 12/1998, de 22 de mayo, contra la Exclusión Social.

La Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco dictó sentencia, con fecha 24 de octubre de 2003, en el recurso contencioso administrativo número 2680/02. En este recurso el sindicato ELA-STV impugnó el Decreto 199/2002, de 30 de julio, por el que se articula el Programa Auzolan, para la Inserción Laboral de las personas en situación o riesgo de exclusión, y más concretamente los requisitos de duración del contrato y retribución salarial contenidos, entre otros, en su artículo 3.1b).

El fallo de la sentencia es el siguiente: «Que estimando el recurso contencioso-administrativo interpuesto por el sindicato ELA-STV debemos declarar la nulidad del artículo 3.1b) del Decreto 199/2002, de 30 de julio (BOPV 174, de 13-09-02) en lo relativo a los requisitos duración y retribución salarial, sin que proceda la expresa imposición de las costas procesales causadas.»

En virtud del artículo 104.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencio-

tikuluari jarraituz, errekurritu den ekintza burutu duen organoak epaiari jarraitu beharko dio bete-betean eta halaber epaian jasotako aitorpenak betetzeko beharrezkoa dena egin beharko du.

Epai hau zuzen betearazteko beharrezkoa da Jaurlaritzaren Kontseiluak, Dekretua onartu zuen organoa baita, ex novo arautzea deusez deklaratutako betekizunak. Zeren Administrazio Publikoek diru-laguntzak emateko erabiltzen duten jardunbidea araubide juridiko zorrotz baten menpean baitago, eta araubide horrek behartzen du, besteak beste, batetik onuradungaiek aurrez ezagutu behar dituzten irizpide objektiboak ezartzera, eta bestetik laguntzaren zenbatekoa zehazteko behar direnak ezartzera. Eta hori guztia Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko 49.4 eta 51.1.d) artikuluetan agindutakoaren arabera (azaroaren 11ko 1/1979 Legegintzako Dekretua). Horren ildotik, eta nahiz eta sindikatu errekurtsogileak inpugnatu ez, bidezkoa da aldatzea uztailaren 30eko 199/2002 Dekretuaren 8. artikuluko a) idatz-zatia, bertan arautzen baita diru-laguntzaren zenbatekoa ezartzeko irizpideetako bat, soldata alegia. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salaren epaitzak irizpide horri eragiten dio zuzenean, eta ondorioz baita uztailaren 30eko 199/2002 Dekretuaren 3.1 b) artikuluaren aldaketari ere.

Halaber, diru-laguntzen kudeaketa errazteko, erakunde eskatzaileek haien eskabideak bide elektroniko, informatiko eta telematikoen bitartez egiteko aukera ere sartu da.

Horrenbestez, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2004ko abuztuaren 31n egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATU DUT:

*Lehenengo artikulua.–* Berriz idatzi da baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak laneratzeko Auzolan programa arautzen duen uztailaren 30eko 199/2002 Dekretuaren 3.1 artikuluko b) idatz-zatia. Honela geratuko da:

«b) Lanerako kontratuak egitea, honako betebeharrak dituztela:

– Programaren babesean egindako lan-kontratuak ezingo dira izan enplegua eskaintzen duen entitateko ohiko jarduerak betetzeko, ez eta lan arruntetan ari diren langileak ordezteko ere.

– Lan-kontratuak izan beharko dute.

– Egitekoak: lanpostuan egin beharrekoek derrigor egon behar dute loturik onura sozialeko enpleguaren

so-Administrativa, el órgano que hubiera realizado la actividad objeto del recurso, deberá llevar a puro y debido efecto la sentencia y practicar lo que exija el cumplimiento de las declaraciones contenidas en el fallo.

La adecuada ejecución de esta sentencia conlleva que el Consejo de Gobierno, órgano aprobatorio del Decreto, proceda a regular ex novo los requisitos declarados nulos por aquélla, en cuanto que el ejercicio de la actuación subvencional de las Administraciones Públicas está sometido a un estricto régimen jurídico que obliga a determinar, entre otros muchos aspectos, los criterios objetivos que deben ser previamente conocidos por los potenciales beneficiarios, así como aquellos que sean precisos para la determinación de la cuantía de la ayuda o subvención, todo ello de conformidad con lo establecido en los artículos 49.4 y 51.1d) del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre. En este sentido, y a pesar de no haber sido objeto de impugnación por el sindicato recurrente, procede la modificación del apartado a) del artículo 8 del Decreto 199/2002, de 30 de julio, en cuanto que establece y regula uno de los criterios de cuantificación de la subvención, retribución salarial, que ha sido afectado por el fallo de la sentencia dictada por la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, y en cuanto resulta afectado por la modificación operada en el artículo 3.1 b) del Decreto 199/2002, de 30 de julio.

Asimismo, y a los efectos de facilitar la gestión de la subvención, se ha introducido la posibilidad para las Entidades solicitantes de presentar sus solicitudes mediante la utilización de medios electrónicos, informáticos y telemáticos.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, y previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su sesión celebra el día 31 de agosto de 2004,

DISPONGO:

*Artículo primero.–* Se da nueva redacción al apartado b) del artículo 3.1 del Decreto 199/2002, de 30 de julio, por el que se articula el Programa Auzolan, para la Inserción Laboral de las personas en situación o riesgo de exclusión, que queda redactado como sigue:

«b) Contratos de trabajo que cumplan con los siguientes requisitos:

– Los contratos realizados en ningún caso podrán suponer cobertura de actividades normales o sustitución de personal al servicio de las tareas habituales de la entidad oferente del empleo.

– Serán contratos laborales.

– Funciones a desarrollar en el puesto de trabajo: los contenidos del puesto de trabajo tienen que estar nece-

kontzeptuarekin, dekretu honetako 1.4. artikuluan adierazikoaren arabera.»

*Bigarren artikulua.–* Berriz idatzi da baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak laneratzeko Auzolan programa arautzen duen uztailaren 30eko 199/2002 Dekretuaren 8 artikuluko a) idatz-zatia. Honela geratuko da:

«a) Langile-gastuak, Gizarte Segurantzarekikoak kenduta: Auzolan proiektuko ekintzen hartzaileen soldatak; lanaldi partzialaz, aldi baterako kontratatuak izan beharko dute. Auzolan programari atxikitzen zaizkion langileen soldata aldeen artean adostutakoa izango da, inoiz ere ez aplikagarria den hitzarmen kolektiboan jasotakoa baino txikiagia, kasua hori bada.

Edozein kasutan ere, diru-laguntzaren zenbatekoak sei hilabeteko epea hartuko du, asteko hogeita hamar orduz.»

*Hirugarren artikulua.–* Idatz-zati da erantsi zaio baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak laneratzeko Auzolan programa arautzen duen uztailaren 30eko 199/2002 Dekretuaren 9.1 artikuluari. Hauxe:

«Halaber, eskabideak bide telematikoen bitartez ere aurkeztu ahal izango dira, aipatu legearen 38.9 artikuluan xedatutakoari jarraituz.»

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Donostia-San Sebastiánen, 2004ko abuztuaren 31n.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.

sariamente vinculados con el concepto de empleo de utilidad social definido en el artículo 1.4 del presente Decreto.»

*Artículo segundo.–* Se da nueva redacción al apartado a) del artículo 8 del Decreto 199/2002, de 30 de julio, por el que se articula el Programa Auzolan, para la Inserción Laboral de las personas en situación o riesgo de exclusión, que queda redactado como sigue:

«a) Los gastos de personal, excluidos los de Seguridad Social, derivados de la retribución salarial de las personas destinatarias de las acciones del proyecto Auzolan que hayan sido contratadas con carácter temporal, a tiempo parcial. La retribución de los trabajadores que se incorporen al programa Auzolan será la que se acuerde entre las partes, sin que pueda ser inferior a la establecida, en su caso, en el convenio colectivo aplicable.

En cualquier caso, la cuantía de la subvención alcanzará a un período de tiempo de seis meses y de treinta horas semanales.»

*Artículo tercero.–* Se añade un apartado al artículo 9.1 del Decreto 199/2002, de 30 de julio, por el que se articula el Programa Auzolan, para la Inserción Laboral de las personas en situación o riesgo de exclusión, que queda redactado como sigue:

«Asimismo, las solicitudes podrán presentarse también por medios telemáticos, con arreglo al artículo 38.9 de la citada Ley.»

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Donostia-San Sebastián, a 31 de agosto de 2004.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.